

Hezkuntzaren helburu zibikoak eta nazionalak Euskal Herriko erakunde abertzaleen esanean

Txoli Mateos eta Julen Zabalo
EHUko Soziologia irakasleak

Artikulu honen hari eroalea da ezinezkoa dela nazionalismo etnikoaren eta zibikoaren arteko bereizketa zurrunik ezartzea, eta, aldiz, biak erabili izaten direla, neurri batean edo bestean.

Hortik abiatuta, zaila ere izango zaigu euskal nazionalismoa alde batean edo bestean jartzea. Horrela, euskal nazionalismoaren hezkuntza-diskurtsoaren alde zibikoak eta nazionalak aztertzean, beste edozein nazionalismok bezala diharduela ikusiko dugu, hizkuntzari eta kulturari lehentasuna emanaz. Hala ere, estatu-nazionalismoa ez den neurrian, ageriago geratzen dira hezkuntzaren helburu nazionalak, eta bigarren mailan, berriz, herritartasunaren inguruko kezka.

Ondorio orokorra da euskal nazionalismoak hezkuntza-diskurtso liberala duela eta, aldi berean, hezkuntza nazionala nabarmen gailentzen zaiola hezkuntza zibikoari.

The guiding argument of this article is the impossibility of establishing a clear separation between civic and ethnic nationalism. On the contrary, the article affirms that both are usually employed to a greater or lesser degree. Starting from this idea, the difficulty of classifying Basque nationalism as either ethnic or civic is posed.

Hence, on analysing the civic and ethnic aspects of the educational discourse of Basque nationalism, we see that it works like any other and that it grants a preferential place to language and culture. However, to the extent that it is not a state nationalism, when it comes to formulating the aims of education, the national acquires an evident weight in comparison to the question of citizenship.

The general conclusion is that Basque nationalism has an educational discourse of a liberal type, and, at the same time, national education becomes a priority rather than civic education.

Noizean behin, ziurrenik abagune politikoak eraginda, hezkuntza-sistema helburu nazionalisten zerbitzura erabiltzen duela kritikatzeko zaio euskal nazionalismoari. Ustez darabilen nazionalismo etnikoa dela medio, euskal gizartearen aniztasunari uko egiten dioten hezkuntza-proiektuak bultzatzen ei ditu. Beste hitz batzuekin esanda, hezkuntza nazionala hobesten du, hezkuntza zibikoaren kaltean.

Baieztapen orokor horrek funtsik duen edo ez aztertu gura da artikulua honetan. Horretarako, lau galderari erantzuten saiatuko gara. Lehena, egiten den balizko banaketa horri dagokio: egin daiteke horren bereizketa argirik nazionalismo etnikoaren eta zibikoaren artean? Bigarrenean galdetzen dugu zein izango litzatekeen euskal nazionalismoaren kokapena balizko bereizketa honetan. Hirugarren galdera hauxe litzateke: doikuntzarik gertatzen da gaur egun hezkuntza nazionalaren eta zibikoaren artean? Eta, azkenik, horiek guztiak aurkeztuta, artikulua funts nagusiari ekingo diogu, hots, laugarren galderari erantzuten saiatuko gara: hezkuntzaren zein alderdi ematen dio lehentasuna mugimendu abertzaleak?

Gogoeta honen oinarria alderdi politiko eta sindikatu abertzaleek eurek esandakoa da. Helburua ez da, horrela, testuan zehar agertzen diren kontzeptu teoriko batzuk sakonki jorrotzeki ekitea, zeregin horrek, berez, beste lan-mota bat egitea exijitzen du eta. Hortaz, arazoaren kokapen teoriko labur baten ondoren, erakunde abertzaleen hitzei emango diegu protagonismo nagusia.¹

1. Kokapen teorikoa: hezkuntza eta nazionalismoaz

1.1. Nazionalismo zibikoaren eta etnikoaren izaeraz

Ezaguna denez, nazionalismoaren teoriaren barruan, nazioa ulertzeko eredu bi bereizi ohi dira. Nazio zibikoan ulertzen da lurralde mugatu bateko biztanleak, bakoitzak hala uste eta erabaki duelako, osotasun bat direla. Baturik mantentzeko biztanleen borondatea da, hortaz, nazio zibikoaren oinarria. Nazio etnikoan, berriz, kide izatea ezaugarri objektiboetan oinarritzen da, eta ez kide izan nahi duenaren borondatean. Zeintzuk dira ezaugarri etniko horiek? Adostasuna dago odol-loturak, arraza, herria, erlijioa edo ohiturak aipatzean, baina ezbaian, berriz, hizkuntzaren papera, ikusiko dugunez.

Nolanahi ere, teoriaren esparruan kokatzen diren eredu hauek, praktikan ez dira hutsean agertzen, gaur egun nahiko onartuta dagoenez. Nazionalismoek eredu bietatik hartzen dute zerbait, neurri desberdinetan. Gure gaiaren harira datorren adibide bat ipintzearen, estaturik osatu ez duten Europako nazionalismo periferikoak etniko gisa hasten dira, eta ondoren, zenbat eta arrakasta handiagoa erdietsi, nazionalismo zibikorantz jotzen dute (Linz, 1985).

* Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundutako ikerketa-proiektu baten emaitza da (1/UPV 00018.323-H-13899/2001), artikulua egileok 2002an Mila Amurriorekin batera burutua.

1. Landa-lanaren oinarria Hego Euskal Herriko orduko alderdi eta sindikatu abertzaleen ordezkarietara eginiko sakoneko elkarrizketak, banaka eginak, izan ziren. Hortaz, Eusko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna eta Batasuna alderdi politikoak, batetik, eta EILAS, ELA eta LAB sindikatuak, bestetik, ageri dira.

Eredu horiei loturik, beste kontzeptu bi interesatzen zaizkigu: naziotasuna eta herritartasuna. Lehena nazioari dagokio. Nazio batekoa, eta ez bestekoa, izateak ematen du kalitate hori; berdin dio naziorako eredu etnikoa edo zibikoa erabili den. Herritartasun kontzeptua, berriz, administrazioaren eremuari lotu behar zaio, eta hortik datozen betebeharrak eta eskubideei. Nazio-estatuak kontzeptu biak berdintzeko joera dute, eta, beraz, lurralde batean bizi diren guztiak herritar dira, eta nazio bakarra osatzen dutela ulertzen da. Nazionalismo etnikoetan, berriz, aukera biak dira posible: herritartasuna eta nazioa berdintzen badira, nazio etnikoa osatzen dutenek bakarrik edukiko lukete lehenengo mailako herritartasuna, eta naziokide ez direnek, lurraldean bizi arren, bigarren mailako kontsiderazioa jasoko lukete; herritartasuna eta nazioa desberdintzen gero, aldiz, herritar moduko eskubideak berdinak izan daitezke denentzat, nahiz eta nazio etniko bat baino gehiago bizi lurralde horretan. Nazio kontzeptuak ez luke ondorio politiko diskriminatzailearik ekarriko.

Estatuak gabeko nazioei dagokienez, nazio-estatu gisa jokatu nahiko lukete, baina estatu baten sostengu boteretsua falta dutenez, jokaera kontraesankorrak garatzen dituzte batzuetan. Era horretara, alde batetik nazionalismo guztiek bilatzen duten kohesio-helburuari ekiten diote, eta estatuaren bitartekorik gabe, oso agerian geratzen da nahi hori, nazio-estatuetan ez bezala. Baina, beste alde batetik, proiektuarekin bat ez datozen herritarrak oztopo bihurtzen dira. Oztopo politiko, alegia. Erran nahi baita, nazionalismo horrek boterea eskuratuko balu, biztanle guztiak naziokidetzat joko lituzke, seguru asko, nazionalismoen bilakaerari jarraiki.

Ageri denez, hortaz, nazionalismoaren izaera inkluyente edo eskluyentea den ere dago ezbaian. Suposatu izaten da nazionalismo zibikoa, naziotasuna eta herritartasuna berdindurik, inkluyentea dela lurraldearen barruan bizi diren biztanle guztiekin, oro har: denak dira herriokide eta naziokide. Nazionalismo etnikoa, berriz, inkluyentea da ezaugarri etnikoak partekatzen dituzten guztiekin, baina eskluyentea lurralde horretan ezaugarri etnikoak partekatzen ez dituztenekin. Hala ere, hasiera batez jarrera diskriminatzailea dena ondo ñabartu behar da, ezen, esan dugunez, nazionalismo-mota honetan aukera bi daude. Horietako batean nabaria da diskriminazioa, baina bestean nazioa eta herritartasuna desberdintzen dira eta, kasu horretan, ez legoke diskriminaziorik: etnia desberdinak egonik ere, herritar guztiek edukiko lituzkete eskubide eta betebeharrak berdinak.² Bestalde, eredu zibikoak arrisku bat dauka: halabeharrez eta gogoaren kontra ere estatu horren naziotasuna eta herritartasuna onartu beharra (Smith, 1994).

Eztabaida honetan, abiapuntua bera ere oker dagoela iruditzen zaigu, ulertzen baita nazioak, berez, demokratikoak edo antidemokratikoak eta diskriminatzaileak edo integratzaileak izan daitezkeela. Baina, herritartasuna eta naziotasuna bereiziko lituzkeen nazio etnikoa ez litzateke ez diskriminatzailea ez antidemokratikoa izango eta, aldiz, asmo integratzailea lukeen nazio zibiko batek jarrera antidemokratikoak gara litzake biztanle batzuen borondatea bortxatuko balu.

2. Otto Bauer austromarxismoaren teoriko nagusietakoak XX. mendearen hasieran proposatu bezala. Ik. Bauer (1979).

1.2. Hizkuntza: ezaugarri etnikoa edo zibikoa

Hizkuntza ezaugarri etnikotzat jotzen da, normalean, nazioari buruzko ikerketetan,³ baina, ezaugarri zibikotzat ere jo daiteke, eta hala egiten da batzuetan. Lloberak, adibidez, uste du errakuntza handia dela hizkuntza ezaugarri etnikotzat jotzea, erlijioa eta ohiturak bezala, kulturala eta, beraz, eskuragarria baita (Llobera, 2001). Dualtasun horrek egoera bitxi eta kontraesankorretara eramaten du, eta hizkuntza faktore integratzaile edo diskriminatzaile gisa ageri zaigu diskurtsoaren arabera. Integratzailetzat jotzen da kanpotik datorrenari komunitate berrian sartzea ahalbidetzen zaionean. Migrazioetan komunikazio-arazo nabari bat agertzen da askotan, eta hizkuntza ikasteak arazo hori gaindi dezake. Hala uste du, adibidez, Kymlicka-k, integratzailetzat definitzen baitu Estatu Batuetako nazionalismoa, hizkuntza eta historia ikasiz gero, zabalik baitago mundu guztiarentzat (Kymlicka, 1996). Aldiz, hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen den lurralde batean hizkuntza horietako bat zabaltzea edo, agian, inposatzea nahi bada, faktore diskriminatzailetzat joko da.

Badirudi, hortaz, hizkuntzaren indar sozialak erabakitzen duela bere izaera diskriminatzaile edo integratzailea. Ingelesa Estatu Batuetan ikasteak integratzen laguntzen du, baina euskara Espainian edo Frantzian ikasteak diskrimina ditzake euskaldun ez direnak. Hortaz, esan genezake hizkuntza nazionalismo-eredu bietan erabiltzen dela eta helburu politikoek bideratzen dutela batera edo bestera. Ondorioz, nazio-estatuetakoa hizkuntza ofiziala ikastea faktore positibotzat joko da; eta ez, ordea, nazio-estatu horietako estaturik gabeko nazioetan bultzatu nahi dena. Lehenengo kasuan ezaugarri liberala edo zibikoa emango zaio hizkuntzari; eta etnikoa, berriz, bigarren kasuan.

1.3. Euskal nazio-identitatea: euskara eta kultura-aniztasuna

Etnia eta hizkuntza izan dira euskal nazionalismoaren identifikazio-modu nagusiak, XX. mende hasieran lehena; eta XX. mendeko bigarren erditik hona, bigarrena. Baina kasu bietan nazionalismoaren izaera politikoa irten da agerira, eta leundu eta erlatibizatu egin ditu identifikazio-ikur nagusi horiek, bete ezinak baitziren Euskal Herriko biztanle guztien aldetik (Zabalo, 1998; 2000).

Era horretara, gaur eguneko euskal nazionalismoarentzat, hizkuntza da euskal nazioaren oinarria, eta izaera etnikoa duela ondoriozta liteke hortik.⁴ Hala ere, euskal nazionalista gehienak erdaldunak dira, eta nahikoa zaie nazionalismo zibikoaren identifikazio-moduei atxikitzea: lurraldeari eta borondateari, alegia. Euskal nazionalismoak, hortaz, izaera zibikoa eta etnikoa batzen ditu, kontraesanez betea teoriarik, baina modu eraginkorrez praktikan.⁵

Estaturik ez izateak buruhauste franko ematen dizkion arazo bat darama berarekin: nazio-estatuak bultzatzen duten kohesionatze-lana ezin duela haiek bezala gauzatu, alegia. Nazio-estatuaren hasierako egoera kultura-aniztasunarena da, eta hainbat bitarteko erabiliz (hezuntza, garrantzitsuena, hain zuzen ere),

3. Hala egiten du, besteak beste, Clifford Geertz-ek (1987).

4. Hori da, adibidez, Heiberg-en ustea (1991).

5. Santiagok ere agerrarazten ditu etnizismotik alde egin nahia eta lurraldearen garrantzi hori, eta hortik datozen arazoak. Ikus Santiago García (2001).

kultura-homogeneizatzeko bati ekiten zaio. Batzuetan, horrek beste kulturak desagertzeko dakar, eta beste batzuetan, ez, baina beti ageri da kultura nagusi bat: *nazio-kultura* deitua sarritan. Estaturik ez izatean, euskal nazionalismoak ezin du kultura nagusi bat —*nazio-kultura*— bultzatu, eta mezu bikoitz argia plazaratzen du gaur egun: kultura-aniztasuna onartu eta errespetatzen du, eta euskal kultura lurralde osora zabaldu nahi du. Argi ditu lurralde-markoak dakarzkion kultura-mugak, eta onartu egiten ditu, baina argi du, aldi berean, kohesionatze-lana kultura baten inguruan egin dela tradizionaliki, herritartasuna inori ukatu gabe, horregatik. Zeregin hori hezkuntzak eta hizkuntzak betetzen dute gehienbat.

1.4. Hezkuntza eta nazionalismoa: zenbait tentsiogune

Hezkuntza-sistemari zeregin bikoitza ematen zaio: bizitza politikorako gaitasun landua eta arrazionala helaraztea eta, aldi berean, nazio jakin baten ezaugarrien ezagutza eta atxikimendua indartzea. Bestela esanda, hezkuntza zibikoaz eta hezkuntza nazionalaz ari gara.

Horrela, hezkuntza nazionalaren ardatza nazioaren kultura gorestea litzateke, alegia, nazio-historia gurtzea, nazio-hizkuntza irakastea eta tradizioak goraiatzea. Hezkuntza zibikoaren erdigunean, berriz, estatuarekiko leialtasuna legoke eta, beraz, estatuaren arau eta instituzioekiko atxikimendua. Hala ere, nazio-estatuaren sorreran ideia nazional eta liberalen batura gertatu zen, eta ahokaturik geratu ziren estatuko herritarrak eta naziokideak, eta hezkuntza nazionala hezkuntza zibikoarekin identifikatu zen (Tamir, 1993). Nazio-estatua finkatu ahala, hezkuntza nazionala hezkuntza zibikoaren barruan ulertzen da, eta herrialde guztietako hezkuntzaren antolaketaren joera bertsua da: nazio-kultura eta -historia gorestea eta nazio-hizkuntza eta -sinboloak irakastea. Lloberaren esanetan, herrialde zibiko *puruenetan* ere —hots, Erresuma Batuan eta Frantzia— gobernu-politikek hizkuntza eta kultura nazionala inposatzea izan dute helburu, hezkuntza-sistemaren bidez, batez ere (Llobera, 2001).

Baina, nazio-gatazkarik ezean, egungo demokrazia liberaletan hezkuntza-jardunaren alde zibikoa alde nazionalari gailentzen zaio eta, horrekin batera, esangura asko eransten zaio hezkuntza zibikoari.⁶ Ezin esan daiteke, ordea, harreman baketsurik garatzen denik alde zibikoaren eta nazionalaren artean. Izan ere, hiru tentsiogune antzeman daitezke gaur egun hezkuntzaren helburu zibikoak zehazteko orduan:

Lehena, *giza autonomia* versus *nazio-identitatea* pareak osatzen du. Ikuspegi liberalaren oinarria gizaki autonomo eta burujabea da, eta hezkuntza zibiko liberalaren helburua justizia kontzeptuan gutxieneko adostasuna eragitea litzateke. Horren ordez, bizitzaren alde komunitarioa berreskuratu gura dute beste batzuek. Horien iritziz, hezkuntzaren helburua herritarren bertuteak finkatzea da, komunitate jakinetan bizi behar duen herritar bertutetsua eraiki behar da, eta hor abertzaletasunak berebiziko garrantzia hartzen du, talde-interesa lantzen baitu (Callan, 1991).

Bigarren tentsiogunea *hezkuntza unibertsala* versus *hezkuntza nazionala* pareak azaltzen du. Kosmopolitismoari eusten diotenen uste dute herritartasun unibertsala

6. Ikus, besteak beste, (Da Silveira, 2003).

helaraztea dela hezkuntza zibikoaren helburu nagusia. Umeak munduko herrialdeen arteko interdependentziaz eta elkarlanaren beharraz jabetzen dira, eta guk guztiok munduarekin ditugun betebeharrak ezagutzen ditugu (Nussbaum, 1999:13-29). Baina jarrera horrek arazo bat baino gehiago uzten ditu konpondu barik: nola justifikatu, esate baterako, aberkideei begira izandako jokaera moral jakin bat (Miller, 1997). Eta, bestalde, norberaren herrialdeari lotuago sentitzeak eta hari leialtasun nagusia adierazteak ez dakar berarekin, nahi eta nahi ez, gainerakoak gutxiesten edo inolidario izatea.

Azkenik, hirugarren tentsiogunea *kultura-aniztasuna versus homogeneousitasuna* pareak osatuko luke. Hezkuntza zibikoak *monismo kulturala* saihestu behar du, baina herritarrek naziokidetasun-sentimendua izateko, historia eta hizkuntza konpartituak izan behar dira (Kymlicka, 1999). Horrexegatik, liberal askok uste dute guztiz zilegia dela hezkuntzak herrialdeko kultura eta hizkuntza propioak bultzatzea, gainerakoekin kaltean. Izan ere, ikusmolde liberalak multikulturalismoaren onarpen sutsua egiten du, baina, beste batzuen iritziz, kultura-homogeneousitasuna guztiz bateragarria da gizarte liberal batekin. Halaber, zilegia ere bada eskolak herrialdeko kulturaren edukiei lehentasuna ematea, norabide kultural horiek lehenestenak bitzita esanguratsu bihurtzen baitu herrikideentzat (Guttman, 2001).

2. Hezkuntzaren helburuak: erakunde abertzaleak mintzo

Euskal nazionalismoak, XIX. mendearen amaieran sortu zenetik, arduraren nabarmena erakutsi du hezkuntzaren egoeraz. Aldi desberdinetatik iraganik ere, oinarrizko hezkuntzaren norabidea sarritan izan du hizpide, eta, batzuetan, haren kontrola ere eskuratzen saiatu da. Horren harira, mota askotako ekimenak burutu ditu, beti ere arian-arian izan duen indar politikoaren arabera.

Frankismoaren garaian hasita eta diktaduraren osteko hamarkadetan, hezkuntzaren arloan abertzaleek izan dituzten kezka nagusiak euskarak bildu ditu, bestelakoak ere egon diren arren, hala nola, euskal curriculum diseinatzea edota ikastetxeen autonomia zehaztea. Urte askoan, beraz, euskal nazionalismoaren hezkuntza-diskurtsoaren osagai nagusia euskara izan da, eta horrelaxe jarraitzen duela esan daiteke, ondoren ikusi ahal izango dugunez⁷.

Euskarazko irakaskuntza, modu desberdinez bada ere, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan ezarri da. Haren kudeaketa, baina, Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik egon da euskal nazionalismoaren eskuetan, hau da, herrialde horretan bakarrik izan du abertzaletasunak nagusitasun politikoa. Hori dela eta, euskara eta hezkuntza harremanetan jartzen direnean, nazionalismoak horretaz egiten duen erabilerari kritika egiteko asmoz, EAEko eskola publikoa eta ikastolak egoten dira

7. Hala ere, guztiak ez dute modu berean ulertzen euskarazko irakaskuntza. Batzuetan, irakaskuntza euskaraz garatuta egotea ez da ezaugarri nahikotzat jotzen eskola nazionalaren bidean doala esan ahal izateko. Ikus, adibidez, Ikastolen Elkarteko kide batek esandakoa: "Euskarazko ikastetxe guztiak Euskal Herriko Eskola direla pentsatzeko arriskua dago. (...) Ez gara abertzaleago nor den neurtzen ari, sare honetako edota hartakoa, ez, ez da hori. Herri honi dagokion sarea zein den eta zein ez den ikusarazi nahi dugu." (Mirari Bereziartua, *Berria* 2004/4/24, 15. or.). Ikastola eta euskarazko eskola publikoaren artean urteetan egondako lehiaren erakusle dira hitzok. Ikus, horretaz, Mateos, 2000.

jopuntuan, eta Nafarroaren kasuan, ikastolak bakarrik. Horrexegatik ere, oso kontuan hartzekoa da kritika guztiak abagune politikoaren arabera ulertu behar direla beti. Euskadiko Alderdi Sozialistaren eta Eusko Alderdi Jeltzalearen arteko harremanen nolakoak, adibidez, eragin argia izaten du euskal nazionalismoaren hezkuntza-jardunari egindako kritiketan.

Hasieran genioen bezala, kritika horietan, batetik, izaera *baztertzaillea* egozten zaio euskal nazionalismoari, eskolan euskarari eta euskal kulturari lehentasun osoa ematen dien neurrian, euskal herritar gehienak albo batera uzten baititu; eta, bestetik, eskolan proiektu nazionalistaren aldeko jarrerak landu gura dituela bizkarreratzen zaio, horretarako behar diren *doktrinatz*e-jarduerei eutsiz.

Hots, hizkuntza bati emandako lehentasunak eta eskola-proiektu nazionalaren zati bezala ulertzeak eragotzi egiten ei diote nazionalismoari diskurtso demokratikorik garatzea hezkuntza-sistemari begira.

Errepara diezaiogun, ordea, erakunde abertzaleek esandakoari. Gai batzuen inguruan bildu ditugu euskal alderdi politiko eta sindikatu abertzaleen iritzia, denak ere hezkuntzaren helburu zibiko eta nazionalen norabidean erakundeok duten ikuspegiaren isla direlakoan; hala nola, hezkuntzaren esangura politikoa, herritartasuna, euskal kultura eta kultura-aniztasuna.

2.1. Hezkuntza eta arlo politikoa harremanetan

Elkarrizketatutako ordezkari guztiek adierazten dute iritzi bera, alegia, lehenago aipatu ditugun kritikak abertzale ez diren alderdi, erakunde eta hedabideetan aurki daitezkeela eta helburu politiko argia dutela: euskal nazioari erasotzea.

... tratan de atacar a Euskadi o a un concepto de nación vasca que se ha focalizado en el tema de la educación vasca y específicamente los modelos bilingües... (Eusko Alderdi Jeltzalea)

Edonor jabetzen baita hezkuntza nazioaren eraikuntzaren zutabe dela:

... etsaiak inork baino gehiago ikusten du hezkuntza sistemak herri baten eraikuntzan duen garrantzia. (...) etsaiak ere ikusten du euskera eta hezkuntza sistemaren arteko lotura eta garrantzia. (Batasuna)

Hortaz, hizpide *eskola* eta *euskara* dituzten arren, ez dira kritika linguistikoak ezta pedagogikoak ere. Denek onartzen dute jomuga euskarazko irakaskuntza izaten dela:

... guk beti esaten dugu, sindikatu bezala, guk nahi dugula nolabait gizarte elebidun bat, baina hori ez dugula gaur egun, ez? Gaur egun, erdera nagusi dela eta hezkuntzak hor lan haundia duela berreskuratzeko eta normalizatzeko gure hizkuntza. Baina, beraiek planteatzen duten bezala, ematen du hemen gaudela, ez dakit, metraileta batekin esaten 'erderaz debekatuta dago'... (EILAS)

Batzuek ikastolei zuzendutako eraso nabarmenak dute, euren iritziz, ikastetxe horiek zama sinboliko eskerga dutelako:

... beraiek badakite ikastola guztiak ez direla berdinak, eskola publiko batzuetan agian beste ikastola batzuetan baino lan gehiago egiten dela euskararen alde, baina

herrian ikastolen mugimendua da erreferentzia bat. Eta orduan erreferentziasun hori nahi dute nolabait desegin eta desegiten ez badute, moztu edo desitxuratu... (Batasuna)

Eusko Alkartasunaren ordezkariaren arabera, adibidez, helburu hurbila administrazio autonomikoaren erantzukizuna duten alderdiak ahultzea da. Baina, oro har, aspaldiko kritikak direla eta mugimendu nazionalista, bere osotasunean, kalte gura dutelako iritzia nagusitzen da.

Izan ere, erakunde abertzale guztiek, bai ahozko adierazpenen bitartez, baita erakundeek eurek ekoizitako testuen bidez ere,⁸ harreman estu-estuan jartzen dituzte hezkuntza eta euskal nazioaren eraikuntza, eta, beraz, hezkuntza proiektu abertzalearen zatitatz jotzen dute:

... garbi daukaguna da hau nazio bat dala, nazio bat dala eta beraz, nolabait ere, nazio batetaz hitz egiten behar baldin badugu eta abar, ba, horren garapenean eta abar hezkuntza sistema propio bat eta nazio horri erantzungo diona orokorrean, elementu klabe bat dela. Orduan, dudarik gabe, azkenean hezkuntza sistemak diskurtso politiko orokorretan nolabait txertaturik egon beharko lukete. Ez bakarrik txertatuta, baizik elementu nagusienetariko bat izan beharko luke. Dudarik gabe. (ELA)

Hori dela eta, aho batez baieztatzen dute Euskal Herriak, edozein naziok bezalaxe, hezkuntza-sistema propio batez hornitu behar duela, eta horrek helburu bera bete behar duela euskal lurralde osoan, herrialdeen artean dauden mota askotako diferentziak kontuan hartuta ere:

... zalantzarik gabe. Hori da guk oso argi daukagun helburuetako bat. Ezaugarrietan sartzea errealidadearen eta gogoaren arteko debatean sartzea da, ez? Baina, argi dago politikaren barnean, hezkuntzari dagokionez, hori dala helburua. Noski, egunen batean zazpi lurraldeek hezkuntza sistema berdina konpartzea, beti ere ahaztu gabe zer garen, eta beti ere jendeari erakutsita Euskal Herria zer den.... (Eusko Alkartasuna)

Erakunde abertzaleek, eta alderdi politikoek bereziki, argi eta garbi adierazten dute hezkuntza proiektu politiko baten ezinbesteko zatia dela. Normalizat jotzen dute, beraz, abertzale izan edo ez, hezkuntza-proposamen jakin bat egitea, —eta alderdien kasuan, betebeharrak bezala ere ikusten da— alderdikeria jausi barik, ordea.

Hala ere, hezkuntzaren funtzio politiko horri esangura liberal nabarmena ematen diote, ondorengo ataletan ikusi ahal izango dugunez.

2.2. Nazio-identitatea: euskal herritarrak eta giza autonomia

Abertzaleek argi eta garbi diote eskolak euskal identitatea helarazi behar diela ikasleei:

8. Sakoneko elkarrizketez gain, alderdi eta sindikatu abertzaleek kaleratutako zenbait testu ere aztertu dira. Kasu batean zein bestean, diskurtsoaren ezaugarriak berdina-berdinak direla esan liteke. Ikus, adibidez: EAJ-PNV, 1995; Eusko Alkartasuna, 1990; Batasuna, 2000; ELA, 2002; EILAS (datarik gabe); eta LAB (2001).

...nik uste dut sistema batek egin behar duena dela gizarte bat kohesionatu, ez? eta nik uste dut hori dela funtzio nagusia: kohesionatu balore batzuen inguruan, erreferente batzuen inguruan. Eta nik uste dut Euskal Herrirako hezkuntz sistemak egin behar duena dela gizarte bat kohesionatu eta hori da Euskal Herriko entseina sentitzea. Euskal Herriko biztanlego edo partaide bezala, ez? Eta ñabardura askorekin, esan nahi dut, identitate kontzeptu hori nik uste dut jende guztiak ez duela izan behar ehuneko ehun, forma asko badaude, baina, azken finean, bai lortu behar dela sentsibilitate hori. (LAB)

Jatorri desberdinekoak izanik ere, Euskal Herrian bizi direla eta etorkizun komun bat dutela kontziente egin behar ditu haurrak:

... espero que nadie se llame a escándalo por eso, pero, yo creo que un sistema educativo [tiene por función] aunar orígenes distintos hacia un futuro común, es decir, yo creo que tenemos que formar ciudadanos vascos, por supuesto no frente a ningún otro tipo de ciudadano, sino ciudadanos que han de convivir unos con otros y que deben por tanto compartir una base común. Por supuesto, en un mundo complejo, en un mundo donde las opciones crecen, y es una bendición que sea así, y donde por supuesto coexistirán y convivirán opciones religiosas, éticas, políticas, sociales, de creencias, muy diferenciadas, pero sin embargo la base común de conciudadanos que conviven conjuntamente creo que lo debe dar la educación y eso es formar ciudadanos vascos; es decir, con todo, ciudadanos que luego se puedan sentir, además de vascos, lo que quieran ellos, pero que todos al menos compartan una identidad vasca, sin más connotaciones limitadoras de lo que significa ser ciudadanos que viven en Euskadi o en el País de los vascos, nada más. (Eusko Alderdi Jeltzalea)

Ikasleak Euskal Herria ezagutzera eta maitatzera iritsi behar direla diote. Hala ere, hezkuntzaren helburua *herritar onak* egitea ote den galdetuta, deigarria da gehien-gehienek sutsuki erantzuten dutela hezkuntzaren helburua *herritarrak* egitea baino, *pertsonak* egitea dela, pertsona autonomoak, irizpide propioak dituztenak. Hona hemen adibide bat:

Nire ustez, zorionez, hezkuntza ulertzen da pertsonaren formakuntza integrala bezala. Zer da herritar ona? dena asumitu behar duena eta produktore ezinhobea izango dena? Batzuentzat, bai, osea, PPrentzat hori da kontzepzioa... Baina, formatu behar dugu pertsona pentsatzeko, pentsatu ahal izateko, kritikoa izatekoa, informazioa bereizten jakiteko... (Eusko Alkartasuna)

Hori horrela, erabat bazterten dute *herritar onak* edota *herritar leialak* egitea hezkuntzaren helburu bezala; sarritan ere, eskuineko pentsamoldeari dagokiola esaten dute, hau da, helburu kontserbadoretzat jotzen dute.

Baina, azkenean ere, pertsonak egiten baldin baditugu, azkenean, herritarrak egiten ditugu. Hor herritarrak molde bereko pertsonak egitea, ni ez nintzateke ados egongo, sartzen baditugu molde bereko, pentsaera bereko pertsonak dira. Hor askoz ere anitza izan behar dugula. Nik uste dut, azkenean, pertsonak egiten baldin baditugu eta hori askotan definitzea ez da erreza... Baina piska bat hori dela helburua; hori eginez, dudarik gabe, herritarrak lortuko ditugu, euskal herritarrak. (ELA)

Eta tentu handiz planteatzen dute euskal herritartasuna, bereizkeria-kutsua saihestu guran:

...pentsatzea hezkuntza-sistema batek egin behar dituela alemanak edo frantsesak, edo euskal herritarrak oso peligrrosoa da; eta oso peligrrosoa, zeren izan daiteke negatiboa, baita ere. Kuestioa da: esaten baldin badugu, edo horrekin esan nahi baldin badugu egin behar ditugula Euskal Herriaren errealtatearen jabe edo kontziente den jendea, noski, hori bai, noski, zalantzarik gabe. Baina horrek esan nahi baldin badu euskal herritar egiteagatik kanpoko, desberdina dena, anitza dena, ukatzeko joera piztuko dugula gure ikasleen artean, ez da positiboa, eta ni horrekin ez nago ados. (Eusko Alkartasuna)

Kutsu liberal hori are nabariagoa da balizko hezkuntza-sistema propio batek helarazi beharko lituzkeen balio nagusiei buruz galdetzen zaienean. Hain zuzen ere, baliorik aipatuena *tolerantzia* da, batzuetan mesfidati agertzen diren arren, kontzeptu horren ustezko erabilera maltzurra dela eta. *Beraien inposaketak ezkutatzeko* erabilia (Batasuna) edota *desgastatua* egotea (EILAS) egozten diote kontzeptuari. Tolerantziaren ondoren, norbanako eta herrien arteko elkartasuna, sexismoa gainditzea, giza eskubideen defentsa... Horiexek dira eskolak ikaslearen landu beharko lituzkeen jarrera moral nagusiak. Hona adibide bat:

...nik, hola, baloreei buruz hizketan, lehen balorea norberaren autoestima deskubritzea eta norbera maitatzea, dagoen bezala, garen bezalakoak, ez? herri batean txertatua gure hizkuntzarekin... Bigarrena, balore solidarioak, solidarioak gure inguru hurbilenetik hasita. Ikastetxeko koadrilla, familia, auzoa... eta sensiblea, besteekiko injustizia guztiekiko sensibleak, eta abar. Beste balore bat, kritikoa, o sea, nortasuna duena, beste batzuek esaten dutena ba onartzeko edo kritikatzeko gaitasuna duena, bere kriterio propioa duena... (Batasuna)

2.3. Eskolaren helburua: euskal herritarrak edo euskaldunak?

Eskolaren helburua euskal herritarrak edo euskaldunak egitea izan behar den galdetuta, ez dute uste batak lehentasunik izan behar duenik bestearen gainetik:

Son estas disyuntivas un poco extrañas. Yo creo que euskaldunes es un elemento incorporado en ciudadanos vascos. Yo creo, sinceramente, que hay que formar ciudadanos vascos, lo que necesariamente significa euskaldunes y no sólo euskaldunes, sino también yo creo que tenemos que asegurar a las familias que su hija, su hijo ha sido debidamente euskaldunizado, habla un inglés de comunicación debido, conoce debidamente como mínimo también la otra lengua oficial de según que parte y seguramente también deberá conocer la otra lengua oficial también de otros vascos, el francés o el español en su caso. (Eusko Alderdi Jeltzalea)

Argi adierazten dute euskal herritarrak direla bertan bizi diren guztiak:

... bai, hemen bizi gara eta, beraz, euskal herritarrak egitea da hezkuntza sistemaren helburua. Baina, klaro, nik uste dut derberdintasunak sortzen direla definitzerakoan zer ulertzen dugun euskal herritarrak... zer den euskal herritarrak izatea; zeren, azken batean, guretzat, hemen bizi diren guztiak dira euskal herritarrak, ez?, eta nik uste dut hor arazo batekin topatzen garela, eta arazo hori dela euskal herritar horien artean, derberdintasunak daudela identitate mailan ere eta sensibilitate mailan, ez? Orduan, lana izan beharko litzateke amankomuneko gauzak topatzea. (EILAS)

Eta,aldi berean, ez dute irudikatzen eskolaren jarduna gaztelaniaz bakarrik. Bada, euskal herritar baten eskubidea eta betebeharra elebidun izatea dela eta pertsonak hizkuntza jakin batean garatzen direla diote:

... nik elebiduna izatea eskatuko nioke edozein herritarri. Horretarako, hezkuntzatik aldatu beharko lirateke gauza asko. Nik uste dut ezin direla banatu, inolaz ere ez. Nik uste dut hizkuntza, azken batean, tresna bat dela, gauza bat edo beste bat egiteko, edo gauza bat edo beste bat izateko pertsona bezala ere bai, eta tresna bezala hartuta, nik uste dut biak batera joan behar direla: pertsona garatzearena hizkuntza batetan, kasu honetan, ba, euskaraz, ez? (EILAS)

Edo, hezkuntza-sistemaren helburua euskal herritar guztiek euskara gutxienez ulertzeko gaitasuna izan behar dela adierazten dute:

Agian planteamendu oso errealista ez daukadala esango didazu, baina, nire ustez, bermatzea herri honetako kide denak hiru hizkuntzetan [euskara, gaztelania eta frantsesa] hitzegiteko aukera izango dugula. (Eusko Alkartasuna)

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hizkuntza-politikaz gizartean, oro har, edo erakundeen baitan, zehazki, soma daitekeen iritzi-desberdintasunari jarraiki, erakunde abertzaleek binomio banaezintzat jotzen dute hezkuntza eta euskara. Batzuek eskolaren helburua elebitasuna dela azpimarratzen dute —hau da, hizkuntza ofizial bien ezagutza—; eta beste batzuek helburu nagusia ume guztiak euskalduntzea dela diote; baina den-denek indar handiz azpimarratzen dute gazte-belaunaldiaren euskara ziurtatzea dela eskolaren funtsezko zeregina. Oro har, guztiak agertzen dira hizkuntza-plangintza malguak eta tokiko errealitatera moldatuak egitearen alde. Hala, kasu batzuetan, erabateko protagonismoa hartzen du euskarak hezkuntza-sistemaren helburuen artean, biztanleen eta herrialdeen artean dauden desberdintasunez kontziente izanik ere:

Bueno, ba, nik uste dut hizkuntza dela elementu zentral bat, hizkuntza eta hizkuntzaren inguruan sortzen den unibertso kulturala, baloreak, eta horren inguruan sortarazten den mundu guzti hori, ez? Nik uste dut horri kriston garrantzia eman behar zaiola. Eta, gero, nik uste dut gaitasun ikaragarria egon behar dela integratzeko Euskal Herriaren barruan dagoen aniztasuna, aniztasun historikoa, kulturala, eta abar. Hori dena integratu behar da. (LAB)

Halako moldez non, ia erantzun guztietan ikus baitaiteke euskal herritartasuna eta euskalduntasuna bereizteko asmoaren aurrean egonezina:

Bueno, dikotomia faltsua da, eta beraz, ezin dut egin euskal herritarrik euskalduna egin gabe. Eta errore handi bat izango litzateke planteatzea euskaldunak egitea, euskal herritarrik egin gabe, zeren euskalduntasun horrek ez du etorkizunik, eta euskalduntasun hori nahiko azalekoa izan daiteke. Beraz, edo biak lotzen ditugu eta uztartzen ditugu edo, bestela, ez dugu irtenbiderik. (Batasuna)

Balizko dikotomia horrekin gustura egon ez arren, badago, ordea, nolabaiteko sailkapena egiten duenik; bai denboran baita garrantzi-mailan ere. ELAko ordezkariaren arabera, esate baterako, euskara ziurtatu egin behar da, presazko helburu bezala, eta euskal herritarrak egingo dira euskal hezkuntza-sistemaren norabidea kontrolpean dagoen heinean:

Bueno, nik ez dut uste kontrajarriak daudenik biak. Dударik gabe, euskaldunak bai; nik uste dut behintzat gure hizkuntza, hizkuntz nazionala edo... euskara dela eta, beraz, euskaldunak egin behar ditugu, klabe horretan. Eta herritarrak, lehen esan dudana: termino hori oso zabala izan daiteke, hor gauza asko sar daitezke. Nik uste dut eskola sistema propio bat izango bagenu, ezaugarri guztiekin, eta ardatz

nagusietako bat bezala euskara hartzen baldin badu; eta guk hezkuntz-sistema hori eratzeko [gaitasuna bagenu], guk, herritarrok, hemen bizi garenok, erabakiak gureak baldin badira eta abar, helburu hori lortua dagoela: azkenean ere euskaldunak izan behar dute eta, herritarra geuk egingo dugu, hartuko ditugun erabakietan eta eskoletan ematen diren dinamikekin eta abar... (ELA)

2.4. Euskal kultura eta kultura arrotzak

Erakunde abertzaleek, aho batez, lehenasunezkoa irizten diote eskolan euskal kultura lantzeari, zeregin horri kultura unibertsalari bizkar eman gabe ekitea proposatzen badute ere. Euskal kulturaren osagai nagusiak eduki *propioak* liriateke, hau da, Euskal Herria aztergai duten geografia, historia, literatura eta, oro har, jakintza-arlo guztiak.⁹ *Euskal curriculum*a delakoak, horrela, euskal kultura du funtsezko osagaia eta euskara hizkuntza nagusia litzateke bertan. Baina, nola edo hala, adierazten da eskolak ezin duela kultura eta hizkuntza *bakarra* helarazi; hau da, nolabaiteko lekua egin behar zaiela frantsesez eta gaztelaniaz ekoizitako kulturei. Hona hemen adibide bi:

... nosotros, en definitiva, tenemos una responsabilidad con nuestra cultura vasca, con esa pluralidad que tiene la cultura vasca, que tiene una lengua propia, que tiene una cultura propia y que tiene también unas culturas de origen español y francés que tienen un peso especialmente importante y que conviene cultivar, porque esa pluralidad es seguramente la característica más identitaria de lo vasco. (Eusko Alderdi Jeltzalea)

Nik uste dut gu Euskal Herrian bizi garela, baina, handiagoa den beste toki batean ere, ez? Eta haundi hori ba momentu batean esan dezakegu, ba, estatu espainolean dauden herrialde desberdinak, Europa mailan daudenak. Eta nik uste dut hortik jaso dugun oinarri kulturala ere eta hemengo jendeak, edo batzuk behintzat, bereganatu dutena ere agian, momentu batzuetan, sartu beharko genukeela Euskal Herriko kultura bezala, ez?, balore bezala, adibidez. (EILAS)

Ardura nabaria agertzen da hezkuntza-sisteman euskal kulturak pairatzen duen zokoratze edo gutxiespen-egoeraz:

...lehenasun bat izan beharko luke gu, herri bezala, zer izan garen, zer garen eta zer izango garen (...). hau da, abiapuntua geurea izan beharko luke, hain baztertua dagoen gure kultura, hori izan beharko luke, eta hain gutxi ezagutzen dena, zoriturrez, eta gero eta gutxiago... Nik uste dut kultura ahalik eta adierazpen ezberdinak, ahalik eta gehiena ematea helburua izan behar duela, beti ere noski geurea kontutan harturik. (...) ... zer dakigu hemen bizi garenok, zer dakigu gure literaturaz? Ideiarik ez. Eta musika bera, eta mila gauza. Horiek nolabait ere ezagutu eta landu egin beharko liriateke, gure patrimonia eta gauza propioa denez, eta abar. (ELA)

Euskal kulturak eta hizkuntzak protagonismo nabarmena dute euskal curriculumaren osaeran, baina, ez da aurkezten kultura arrotzei itxitako aukera bezala, eta hori modu bitan adierazita. Alde batetik, diskurtso den-denetan, bai ahozkoetan eta idazki ofizialetan baita abertzaletasunaren espektro guztian ere, agertzen da ideia hau: euskal eskolak mundu osoari zabalik dauden pertsonak egitea du helburu. Balizko *txokokeriak* erabat saihestu gura dira, hortaz:

9. Eduki propio hauek ez dituzte asko zehazten elkarrizketatuek. Batek baino gehiagok *bertsolaritza* aipatzen du eduki propio horietako adibide gisa.

... anitza esaten dudanean, da irekia ere, modu batean, ez? O sea, gurea mantenduz eta zainduz, nolabait, balore bat delako, berez, baina irekitasunez. (EILAS)

Beste alde batetik, Euskal Herriko hezkuntza-sistemak etorkinen jatorrizko kulturara begira jokatu beharko lukeen zereginaren inguruan, *aniztasuna*, *kulturen arteko harremanen onuragarritasuna* eta abar sarritan aipatzen dira. Hala ere, argi eta garbi baieztatzen da euskal kulturara bildu beharko liratekeela haur gauztiak. Oso adierazgarriak dira ondoko hitzak:

... yo creo que tenemos ya realidades, tenemos zonas donde el asentamiento de estas familias extranjeras es mayor y tenemos aulas con culturas de orígenes muy diversos. En todo caso, nosotros a todo nuestro alumnado debemos formarles como alumnado vasco para ser ciudadanos vascos que compartan algo en común que es esa identidad vasca común. Entonces, sin pedir a nadie que renuncie, porque los creemos en ese sentimiento de pertenencia a identidades reprimidas, yo creo que vivimos y vamos a vivir más unas realidades interculturales donde la riqueza que comporta ese interculturalismo es beneficiosa para todos. Pero, naturalmente, el sistema educativo vasco no forma al alumnado de familias chinas con profesorado chino para que vuelvan a China. Nosotros a una familia de origen de Asia, o del Magreb, etc, lo que tenemos que hacer es formarles como ciudadanos vascos con todo el bagaje cultural y educativo que tiene cualquier otro condiscípulo o condiscípula vascos; darles la sensación de pertenencia y la identidad y la lengua y la cultura para que puedan desarrollarse como ciudadanos vascos, y, al mismo tiempo, mantener una presencia cada vez más plural y más diversificada de otro tipo de culturas que las vamos a sentir más o menos cerca, y que, además, ellos deben transmitirles también la idea de que ellos tienen también una responsabilidad seguramente con sus orígenes, con el patrimonio cultural del que provienen, de cultivar esa cultura de origen. Y que el conocimiento de todas esas culturas, que cada vez son más —y esto es muy enriquecedor— debe estar seguramente también más presente en la realidad educativa y lo va a estar también en la realidad social. Es decir, creemos que estas familias y este alumnado extranjero es una gran oportunidad histórica para una Euskadi de futuro; es decir, nosotros, al final, vamos a tener una ciudadanía vasca de origen seguramente mucho más diversificado que lo que hemos tenido hasta el momento. (Eusko Alderdi Jeltzalea)

Ildo horretatik joanda, lehenik eta behin, euskal nazionalismoak ez du zalan-tzan ipintzen, beharrezko malgutasunaz eta neurri bereziak erabilita ere, etorkin guztiak euskaldundu beharko liratekeela; edo, bestela esanda, hizkuntza ofizial biak ezagutu beharko litzuketela:

Egia esan, Ipar Afrikatik datozenentzat antzeko-parecido da hizkuntza bat ikastea edo beste bat ikastea, ez? Baina, Hegoamerikatik datozenekin bai da problema bat. Hor, pixkat orain egiten hasi garena indartu eta sendotu egin beharko da; azken finean, tratamendu berezia behar dute. Hor hartzen diren neurriekin bat nator: eskatu curriculumaren egokitze pertsonal bat eta, bertan, euskeraren tratamendu berezi eta anitzagoa, asignatura desberdinetan. Errefortzuak egin daitezke, adibidez, hizkuntza arloan, baina, azken finean, administratibotik egin beharko genukeena da, eta egiten saiatzen ari direna, programaketa oso bat, programaketa oso bat non ikaslearen baldintzen arabera tratamendu berezi bat egiten zaion. Batzuetan nahikoa izango da errefortzua, batzuetan nahikoa izango da curriculumaren egokitze minimo bat ba, esanez: ikasle honek lortu behar dituen minimoak ez dira gainontzekoen minimo berdinak, baizik eta beste batzuk izango dira. Agian, batzuen

arabera, izango da, benetan, gainontzeko klase-ordutegia moldatu eta euskararen tratamendu berezi bat bat jarri, hilabete batzutan edo dena delakoa, ez? Hori, nire ustez, benetan seriozki hartu behar dugu eta egon daitezkeen baldintza desberdinak aurreikusi eta horiei aurre egiteko programaketa desberdinak egin, eta dena kontratatuta, dena, baliabide osoak. (Eusko Alkartasuna)

Bigarrenik, denek ere diote etorkinek euren jatorrizko kultura eta hizkuntza ezagutzeko eta lantzeko eskubide osoa dutela. Badaude eduki kultural batzuk negoziagarri izan daitezkeenak (janari-motak, adibidez), eta beste batzuk ez (zenbait praktika erlijioso), eta administrazioa izan behar da zuzentasun horren bermatzailea. Itxarotekoa denez, eskubide horri zenbait baldintza ipintzen zaio: ohitura kulturalak giza eskubideen kontrakoak ez izatea, esate baterako:

... hay que asegurarles que ellos tengan las opciones de euskaldunizarse, y también creemos que tienen derecho a seguir cultivando sus lenguas y que sean reconocidas sus lengua y culturas de origen. Quizás la única limitación son ciertas prácticas que pueden, con todo el respeto y todo el valor que puedan tener, es el límite de los derechos humanos, por motivo religioso, etc., que sean restrictivas de derechos, que parece que forman parte de esa ética de mínimos, pues serían los únicos no reconocidos. Sin embargo, yo creo que hay que tener una tolerancia absoluta hacia signos religiosos siempre que no signifiquen proselitismo. Creemos que debe estar excluido todo proselitismo religioso, incluso político, por supuesto, o de otra naturaleza, dentro de la escuela, pero, al igual que es frecuente que los niños lleven cruces, nos parece que la jilbad, o cualquier otro tipo de símbolos, deben de estar presentes. (Eusko Alderdi Jeltzalea)

Oro har, ez dira bateraezintzat jotzen kultura arrotzak eta euskal kultura:

...kultura aldetik, guk pentsatzen dugu ikasle horiek eskoletan integratzen baldin badira, nolabait, eskolak errespetu guztiarekin, kultur aniztasun hori bultzatu beharko lukeela. Eta hemengo ezaugarriak eta hemengo kultura kontutan izanda, ez bakarrik errespetuz, baizik eta hemengo ikasleak ere ezagutu beharko luketela bere kide diren beste ikasle batzuk duten kultura, eta maila horretan, aberastu kulturak, ez? Nolabait, kulturen arteko harreman hori, nik uste dut hor esperientzia politikak ere hasi direla egiten, ez? Hemen, eta arazo nagusia agian [da] hemengo gizartean integratzeko oztopoak ipintzen zaizkiela, baina gela normalizatu batetan... nik uste dut —erreza ez da ezer, ez?—, baina posible dela edozein gairen inguruan kulturen arteko harreman hori bultzatzea. Guk ikastolan oraindik etorkin gutxi ditugu, eta ditugunak txikitatik sartu dira... Azken boladan, sindikatuan ere nahiko indarra hartzen ari da gai honetaz osatutako taldea eta indartsu dabil. Planteatzen da jai bat prestatzen dugunean: zergaitik ez prestatu jai bat Errusian [adibidez] egiten den bezala?. Azken batean, aberasgarria izan daitekeena guztientzat, ez? Eta etorkinak ere bere kultura baloratzen dela ikusteko ere, beste batzuk beraien kultura baloratzen dutela, eta horrela, nik uste dut, geografiatik hasita, gauza asko egin daitezkeela, baina baliabideak ipinita horretarako. (EILAS)

EILASeko ordezkariarekin batera, beste batzuek ere aipatzen dute aberasgarri izan daitekeela eskolan kulturen arteko harreman hori lantzea, baina, batzuetan, ez zaio ematen eskolari betebeharrak zehatzik kultura horiek bultzatzeko helburuarekin eta, orduan, eremu pribatura bideratzen da zeregin hori:

Ez dakit; zalantzan jarriko nuke benetan eskolaren ardura den edo ez. Esan nahi dut, kanpotik datorren jendeak behintzat ere badu hori mantentzeko aukera bat eta da kontestu gertuenetarikoa, familia bera. Hori ez dute galduko ez bazaie kanpotik esanez, inposatzen, hori galdu behar duzue eta abar. Bere hori mantenduko dute bere kontestu jakin horretan, familian eta abar, bere hizkuntza, bere ohiturak eta abar, dudarik gabe jasoko dituzte eta saiatuko dira mantentzen. Ez dut uste ere guk egokitu beharko genukeela curriculum-a haiei hezkuntza indartzeko, ez da, uste dut, hori kontua. Errespetua da: bere ohitura, bere hizkuntza eta abar hor izango dute, bere erabilera bere kontestuetan hor izango dute, eta hori errespetatu behar dela, eta hori ziurtatua izango dute kontestu horretan, garbia da. Baina, nolabait, integratzeko formula nik uste dut hori dala, o sea, zurea errespetatzen dugu, baina, era berean ere, hau da, herri honetako hezkuntza eta delako hori... Eta aukera eman behar zaie era natural batean integratzeko, berea galdu gabe, noski. (ELA)

Hirugarrenik, ez dirudi kultura arrotzek ekar ditzaketan arazo moralak, erlijio-soak edo antzekoak direnik erakunde abertzaleen kezka gehien biltzen dutenak, eta bai, ordea, nolako lekua beteko lukeen euskal kulturak kulturen arteko harreman horien baitan. Izan ere, euskal kultura beste kultura batzuekin nahastea edo elkarrekin bizitzea aberasgarria izan litekeela esaten dute; baina,aldi berean, nabaria da ez dutela *aingeruzko kultura-aniztasunean* sinesten. Ahaleginen arteko oreka bat proposatzen du Eusko Alkartasunaren ordezkariak:

... umearen gurasoek asimilatu behar dute atzerrira joan direla, eta atzerrira joateak beti suposatzen behar duela bai beraiei bai bere semealabei, ba, jatorriz dakarten kulturaren galtze parte bat. Hori, zoritxarrez, etorkin den edozein pertsonak asumitu behar duen galera bat da, ez? Atzerrira zoaz eta asumitu behar duzu, ba, beste kultura bati aurre egin behar diozula, eta beste kultura baten integratu behar zarela. Beraien partetik egin behar duten orekarako esfortzua hori da. Zentrutik egin behar dan orekarako esfortzua da benetan jasangaitzak izan daitezkeen gauzak ikaslearentzat ba ez behartzea, o sea, hori izan behar da ere oreka puntu inportante bat, eta hemen oso delikatua da musulmanen kasua, adibidez, oso delikatua da, baina nik uste dut hor zentroak, eta zentroa osatzen duten erakundeetaz ari naiz, hau da, gainontzeko ikasleak, gurasoak, zuzendaritza eta abar, ba izan behar dutela akaso, euren begirunea, pixkat esfortzu bat egiteko oreka puntu hori topatzen, batzuen partetik eta besteen partetik, eta gero azken finean ikaslea, azken finean bera da pieza inportanteena, ez?, baina ikasleak ulertu behar du non dagoen, eta... ikasten duen ingurunean, zeintzuk diren beharrak eta zeintzuk ez diren beharrak. Eta berak, ingurune baten integratu nahi baldin badu, ba, ingurune horretan nagusi, edo ezinbesteko edo bakarrak diran aldagai denak: hizkuntza, hizkuntzakoak, ba janarikoak, elkar erlaziokoak, eta abar, guzti horiek asumitu behar ditu. Orduan, azken finean, pixkat oreka horretan datza, ez? (Eusko Alkartasuna)

Nolabait esatearren, denak ageri dira erne kulturen arteko harreman horrek euskal kulturari ekar liezaiokkeen arriskuaz:

Ez dakit, horretaz ere ibili gara eztabaidatzen. Eta nik uste [aniztasunak] ez lukeela arriskuan jarriko [euskal kultura], baina, agian, euskal kulturak denborarekin hartuko lituzke beste... kultura hori joango zen aberasten beste forma batzuekin ere. Eta agian forma horiek hartuko dira ba pertsona horiek ekarritako kulturatik, ez?. Baina, klaro, hor asuntua da, gure kultura galduko dugu edo aberastu egingo dugu?. Eta nik uste dut hor beste eztabaida bat dagoela ere, ez? (EILAS)

Hori horrela, etorkinen jatorrizko kulturari eta hizkuntzari errespetua zor zaiela adieraziz, etorkinak *integratu* egin behar direla, edota *herri honetako partaide* edo *bertako* bihurtu behar direla esaten da, eta horretarako biderik egokiena euskal kulturaren gakoez jabetzea dela:

Nik uste dut lehenengo gauza dela jakitea non dauden, eta herri honek ze beharrak dituen, eta haiek ere partaideak izan behar direla horien inguruan eta, horrekin batera, aukerak izatea haien baloreak aurrera egiteko... Baina zalantzarik ez dago: nik uste dut ezin dela planteatu horren gainean jartzea, hemen dauden baloreen edo tresna kulturalen ginetik. Hori nola egiten den?, konplikatua da... Nik uste dut helburua izan daitekeela pertsona horrek onartzea gizarte honetan dagoela, eta konpartitzea oinarritzko erreferentzia pertsona horiekin. Biziarauteko erreferentziak, ez? Urrunago joan gaitzke?, ba, seguraski, belaunaldi hori, ez, [baina] seme-alabak?, ba, seguraski, errezago izango dute... (LAB)

3. Azken gogoeta, ondorio gisa

Egin ditzagun, bada, azken gogoeta batzuk honaino ikusitakoaren harira, artikulua ondo gisa balio lezaketanak.

Erakunde abertzaleek adierazitakoari erreparaturik, nahiko argi geratzen da euskal nazionalismoak bere proiektu politikoaren zati gisa ulertzen duela hezkuntza, eta horretan –gehi liteke– edozein nazionalismok bezalaxe dihardu. Uste hori dela medio, berebiziko funtzioa ematen dio eskolari euskal herritarren nazio-identitatearen finkapenean, baina ezin esan daiteke bazter uzten dituela giza autonomia bezalako kategoriak hezkuntza-diskurtsoan. Izan ere, euskal erakunde nazionalistek arazo handirik gabe elkartzen dituzte gizabanakoaren garapenari eta nazioaren biziraupenari dagozkien hezkuntzaren helburuak, eta hori dena doktrinatzeko politikoaren kutsua eduki lezakeen guztia saihestuz. Alde horretatik begiratuta, beraz, euskal nazionalismoaren hezkuntza-diskurtsoak ikuspegi liberalari eusten diola esan liteke, eta horrekin zehaztu gura dugu *hautu indibiduala* eta *pentsamendu-askatasuna* gisako balioak maiz goraiatzen direla haren hitzetan.

Beste alde batetik, euskara zabaltzeak lehentasunezko lekua hartzen du hezkuntzaren helburu bezala, eta horretan ere, nazionalismoaren ohiko jokamoldeari eusten dio. Lehenago ere adierazita dago nolako protagonismoa duen hizkuntzak egungo euskal nazionalismoak hobesten duen nazio-identitatean. Azalduta utzi dugu ere ezbaian dagoela hizkuntza ezaugarri etnikoa edo zibikoa den, eta horrek bide ematen duela nazionalismo jakin bat bietan kokatua izan ahal izateko, diskurtsoaren arabera. Estatuak izaera integratzailea ematen diote hizkuntzari, eta izaera baztertzalea leporatzen diote, gainera, estaturik gabeko nazioetan bultzatzen denari, Euskal Herriaren kasuan frogatzen den bezala. Edozein modutan ere, euskara eta eskola bera herritar guztien integrazio-tresnatzat jotzen dute erakunde abertzale guztiek. Estatuak ere diskurtso horri eusten diote, eta, gainera, elebakartasuna inposatzen saiatu ohi dira gehienetan. Mugimendu abertzalearen adierazpenetan ikus daitekeen moduan, ordea, euskarak erabateko protagonismoa izanik ere, eskolak hura eta gaztelania (edo/eta frantsesa) helarazi behar dituelako iritzia nagusitzen da.

Berdin gertatzen da euskal kulturari dagokionez. Euskal kultura indartzea helburu desiatu bezala agertzen da ordezkari guztiengan, baina, aldi berean, euskal nazionalismoa oso kontziente da euskal gizartearen aniztasun kulturalaz; bai herrialde eta pertsonen artekoaz, baita kontinenteen arteko immigrazio berriak eragindakoaz ere. Azken hori dela eta, izaera liberal nabarmena erakusten du bere diskurtsoan kultura-aniztasun horri ematen dion trataeran. Liberal erradikala ere badela esan genezake, kontuan hartzen badugu, esate baterako, ordezkari abertzale gehienek zeregin gutxi eransten diotela hezkuntza-sistemari —eta, beraz, arlo publikoari eta administrazioari— bertakoak ez diren adierazpen kulturalak lantzeko orduan. Familian lantzeko aukera aipatzen du baten batek; kultura arrotzei begirunea zor zaiela diote denek, euskal kulturarentzat aberasgarri izan daitezkeelako desioa eta zalantza besteren batek... Baina jarrera liberal horrek badu mugarik, halaberharrez: hona datorrena *bertakotu* egin behar dela, eta horrela izan dadin, administrazioak eskura baliabide-andana jarri behar duela deritzote denek. Hortaz, itxarotekoa denez, mugimendu abertzalea erne agertzen da kultura-aniztasunak euskal kulturari ekar diezaiokkeen kalteaz.

Horrenbestez, euskal nazionalismoren hezkuntza-diskurtsoan —*estatu*-nazionalismoa ez den neurrian— gehiago nabarmentzen da eskolaren helburu bezala *euskal kultura indartzea, euskal herritartasuna eraikitzea* baino. Alde batetik, esan bezala, euskara eta euskal kultura ziurtatu gabe ikusten ditu mugimendu abertzaleak, ez baitu baliabide nahikorik nazio-kulturatzat jotzen duena ezarri ahal izateko. Bestetik, baina ildo beretik joanda, zaila da euskal lurralde osoa batzen duen egitura politikorik ezean, euskal herritartasuna irudikatzea hezkuntzaren helburuen artean. Horrexeatik ere ez dugu uste kasualitate hutsa denik, adibidez, Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkariaren diskurtsoa izatea alde hori —herritartasuna eraikitzea— argien azaltzen duena, alderdi politiko horrek urtetan izandako goimailako ardura instituzionalek eraginda. Era horretara, ez da harrigarria gainerako erakundeek euskalduntasuna eta euskal herritartasuna osagarri direla adieraztea, baina, aldi berean, herritartasunaren inguruko gogoeta bigarren maila batean gertatzea. Horrek islatzen du herritartasunaren eraikuntza teorikoa ez dela presazkoa, hots, ez duela behar epe laburrean ahalegin berezirik, eta horrelaxe iradokitzen dute, adibidez, ELAko ordezkarien hitzek. Ez du islatzen, ordea, herritartasun-eskubidearen ulerkera murrizta, behin eta berriz adierazten baita euskal herritarrak direla bertan bizi diren guztiak. Horrela, sarritan aipatuak dira gizarte kohesionatuaren beharra, etorkinak integratzeko ahalegina, eta antzeko gurariak.

Euskal nazionalismoaren hezkuntza-diskurtsoan ez dira ageri egungo demokrazia liberalen markoan aipatu ditugun tentsio-iturri guztiak. Ez dugu ikusi, logikoa denez, kosmopolitismoari eusten diotenen ikuspegia eta hura kritikatzten dutenen arteko tirabirari dagokiona. Beste bat, norbanakoaren askatasunaren eta nazio-identitatearen arteko balizko liskarrari dagokiona, modu erraz batean agertzen da elkarturik, inolako gatazkarik gabe. Badirudi, alta, kultura-aniztasunaren eta homogeneousatasunaren arteko tirabira dela buruhauste gehien eragiten diona. Horren arrazoia argitzen saiatu gara honaino.

Izan ere, nabari-nabariak dira estaturik gabeko nazionalismoak dituen tentsioguneak herritartasuna/naziotasunaren inguruan, eta horiek ederto islatzen dira hezkuntza zibikoaren eta nazionalaren helburuak zehazteko orduan. Hezkuntza

zibikoaren definizio estuari jarraituz, ezinezkoa da hura hezkuntza nazionalari gailentzea euskal nazionalismoaren kasuan. Hori dela eta, nabarmenki, nazioaren birproduktioari dagozkion osagaiak sarriago eta indar handiagoz agertzen dira balizko egitura politikoan parte hartzeko gaitasunari eta harekiko leialtasunari dagozkionak baino. Euskal nazionalismoaren hezkuntza-diskurtsoa hasieran aipatu ditugun kritiketara zein neurritan egokitzen den ezartzea ariketa konplexua da, beraz, norberak erabaki beharrekoa.

Aipamen bibliografikoak

- Bauer, O. (1979): *La cuestión de las nacionalidades y la socialdemocracia*, Siglo XXI, Mexico [1. arg. alemanez 1907an].
- Batasuna (2000): *Euskal Herriko hezkuntza sistemaren bidean* [14 orriko dokumentua, fotokopiatua, 2000ko abendua].
- Callan, E. (1991): 'Pluralism and Civic Education', *Studies in Philosophy and Education* 11, 65-87.
- Da Silveira, P. (2003): "Educación cívica: tres paradigmas alternativos", in J. Rubio; J.M. Rosales eta M. Toscano (arg.): *Educar para la ciudadanía: perspectivas ético-políticas*, Contrastes, Málaga, Suplemento 8, 147-162.
- Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatoa –STEE-EILAS- (datarik gabe): *Hezkuntza sistemaren argazkia* [36 orriko dokumentua, fotokopiatua, 2002 urte inguruan egin].
- Eusko Alkartasuna —EA— (1990): *Euskal Eskola*, [EAREN argitalpena, 76 or., bestelako daturik gabe].
- Eusko Alderdi Jeltzalea —EAJ-PNV— (1995): *Ponencia para una Política Educativa*, II Asamblea General – Diciembre 1995 [gaztelaniazko testua bakarrik jaso ahal izan dugu].
- Eusko Langileen Alkartasuna —ELA— (2002): *Irakaskuntzan langileok geure hitza* [2002ko Martxoaren 1ean ELA-Irakaskuntzak Iruñean eginiko 5. kongresurako txostena].
- Geertz, C. (1987): *La interpretación de las culturas*, Gedisa editorial, Bartzelona, [2. argitalpena erabili da, 1989koa; 1. arg. ingelesez, 1973an].
- Guttman, A. (2001): *La educación democrática. Una teoría política de la educación*, Paidós, Bartzelona.
- Heiberg, M. (1991): *La formación de la nación vasca*, Arias Montano Editores, Madrid [1. arg. ingelesez]-
- Kymlicka, W. (1996): *Ciudadanía multicultural*, Paidós, Bartzelona [1. arg. ingelesez, 1995ean].
- , (1999): "Education for Citizenship", *The School Field* 10, 9-36.
- Langile Abertzale Batzordeak —LAB— (2001): *Ebazpenak* [2001eko maiatzaren 18 eta 19an LAB-Irakaskuntzak Iruñean eginiko II. Biltzar Nagusiaren ebazpenak].
- Linz, J. J. (1985): "From Primordialism to Nationalism", in R. Rogowski (arg.): *New Nationalisms of the Developed West*, Allen and Unwin, Boston, 203-253.
- Llobera, J. R. (2001): "Hizkuntzaren indarra identitate nazionalean. Mendebaldeko Europaren esperientzia", *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria* (39): 63-81.
- Mateos, T. (2000): *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua*, Soziologiako Euskal Koadernoak, 5, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Miller, D. (1997): *Sobre la nacionalidad. Autodeterminación y pluralismo cultural*, Paidós, Bartzelona.
- Nussbaum, M. C. (1999): *Los límites del patriotismo. Identidad, pertenencia y "ciudadanía mundial*, Paidós, Bartzelona [1. arg. ingelesez 1996an].

- Santiago García, J. A. (2001): "Las transformaciones de la identidad nacional y la cuestión de la territorialidad en perspectiva comparada. Los casos de Quebec y el País Vasco", *Política y Sociedad* (38): 153-171.
- Smith, A. D. (1994): "Tres conceptos de nación", *Revista de Occidente* (161): 7-22.
- Tamir, Y. (1993): "United We Stand? The Educational Implications of the Politics of Difference", *Studies in Philosophy and Education*, 57-70.
- Zabalo, J. (1998): "Euskal nazionalismo motak —nazioaren ikuskeraren arabera—", *Uztaro* (26), 27-46.
- , (2000): *Abertzaleak eta ezkertiarak*, Elkarlanean, Donostia.

